

Ikasleak, hezkide eta aberkide

• J. IÑAKI ETXEZARRETA •

[IKASTOLEN ELKARTEKO ZUZENDARIA]

Zein da ikasleen papera hezkuntza-prozesuan? Galdera honek erantzun erraza izan du urte askotan: «ikasleak ikasi egin behar du, eta kitto». Erantzun mota hau gurasoen eta profesionalen kasuetara trasladatuz oso mekanikoa zen: «Irakasleak irakatsi egin behar du» eta «gurasoek etxean hezi egin behar du». Katearen maila guztiak bilduz, Administrazio Publikoak paper nagusia jokatzeko du: «Irakaskuntzaren alor guztiak arautu, aginduak eman eta bete diren ala ez kontrolatu, eta saritu/zigortu». Eskolaren historian zehar eskema jerarkiko honek funtzionatu du bai eskola publikoen kasuan, bai eskola pribatu-erlijiosoenean. Oso salbuespen ezagutzen dira Pedagogia garaikidearen historian, kasu isolatuak gehienetan, zanpatuak hainbatetan.

Bigarren Mundu Gerraren ondoren berreraiki zen Europan, ordea, gizarte berri baten eratzea eta herritar sena izatea, Estatuaren Administrazioarekin eta Kleroaren Antolamenduari loturirik gabekoa, azaldu zen 60ko urteetan, kultur eta elkarte-forma berrien bitartez Europa osoan zehar. Euskal Herrian ere, testuinguru legal, sozial eta historiko arrunt berezi batean, euskal gizartearen parte baten baitan gertatu zen eklosioa, 60ko urte horietan bertan Pirinioetatik iparraldera nahiz hegoaldera. Ikastolak, orduko euskal gizartearen parte baten ideiak eta igurikapenak ulertzeko modu berri batetik eta baterako sortu eta garatu ziren eskola alterna-

tibo gisa. Gurasoek, hezkuntzako profesionalak eta lagundu zuten pertsona edo erakundeek sortu eta bultzatutako mugimendu zibil hura onartu eta hazi izanaren fruitu gisa hezkuntza-eredu propio komunitario eta independente bat gorpuzten joan da, hots, alde aurretiko inolako diseinurik gabea, objektiboki desberdina ohizko eskola-antolamenduen (publiko-administratibo eta pribatu-erlijiosoan) aldean eta hezkuntza-prozesuari buruzko pentsamolde holistikotaz bereizten doana, hain zuzen ere.

Ikastolen eskola-eraketa ereduak, autonomian eta partaidetzan ardatzatuak, gainerako eskolek zeukatenarekin topo egin du muturrez mutur. Ikastolen hezkuntza-proiektuan jasotzen denez, «Hautabide demokratikoa egin du ikastolak. Gurasoek, langileek, pertsonal laguntzaileak, ikasleek, administrazioako ordezkariak, denek parte hartu behar dute haren gestioan eta aktiboki lagundu berorren funtzionamenduan». Gurasoak, ondorioz, izan dira kasu gehienetan titularrak (Estatu edo Kleroaren orde), hainbat kasutan gurasoak, profesionalak eta bazkide laguntzaileak.

leak... Honek ikastolaren gestioa markatu du nabarmenki, aspektu honetan eta txarretan, egon badaude eta. Gurasoek ikastolen lehen unetik nahi zuten



Bada ikastolek esan eta bete ez duten zerbait: ikasleen parte hartzea. Jakin badakigu zenbaitetan sekulako galgak jartzen direla

eskola desberdina, ez bakarrik euskalduntasunari dagokionez, baizik eta baliatu behar zen pedagogian eta eskolaren antolaketan, parte hartzean, ere. Ikastola aintzindari eta alternatibo gertatu dira, horregatik, haur txikiak eskolaratzean, neska-mutilak batera hezitzean, metodo pedagogiko berrien erabileran, irakurketa-idazketa prozesuen berrikuntzan, gurasoen-irakasleen arteko komunikazioan eta umeen heziketa kooperatiboan, diru-iturrien bilatze eta administratzean, erreibindikazioetan, euskaldun kultura eta ohiturak herritartzean... Horra hor ikastolen ekarpenetako bat euskal eskolari.

Domina hauekin batera, aldiz, bada ikastolek esan eta bete ez duten zerbait: ikasleen parte hartzea. Hainbat ikastolatan egindako saioak ezagutzen ditugu, jakin badakigun bezala beste zenbaitetan sekulako galgak jartzen direla. Haur eta Lehen Hezkuntzan ikasleen partaidetza nolabait ikas prozesuan bideratuta egonik ere, Bigarren Hezkun-

tzan ez da horrelakorik: etxean guraso seme-alaba arteko harreman pertsonalak larritzen diren legez, ikasgelan irakasle-ikasle arteko beste horrenbeste gertatzen zaie, ikasmaila horietan txertatzen den ikas-irakas prozesu produktiboak egoera larriagotu besterik ez due la egiten. Bistan da, berriz, Haur eta Lehen Hezkuntzan pedagogi komunitarioaz eta kritikoaz hezi diren ikasleek Bigarren Hezkuntza jarraipena behar dutela, beren adinari eta hezkuntza-prozesuaren faseari erantzungo diena, Ikastolaren hezkide eta kudeaketan partaide ditugulako. Beste hamaika lanetan bezala, ikastoloi dagokigu geure hezkuntza- eta eskola-eredutik soluzioa bilatzea, eta ikastoloi diogunean ikasleei buruz ari gara, ikastolaren hezkuntza-komunitatearen partaide direnez.

Ikasle Abertzaleak Iruñean ari dira euren barne eztabaida amaitzen egunotan eta *Euskal Eskola Nazionala ikasleen beharra eta Herriaren beharra* lelo gisa aldarrikatzen. Ikastolek ere beren hezkuntza-proiektuan jasoa dute «Herri bati dagokion neurrian eta hari atxikirik jarraitu nahi duen heinean, euskal eskola da ikastola, Euskal Herriko eskola nazionala eratzeko bokazioarekin». Batu ditzagun gure indarrak eskoletan eta eskolatik kanpoko guneean, Euskal Eskola Nazionala ez baitzaigu eginda emango, eraiki egin beharko dugu, benetako hezkuntza demokratikoa eratzu, euskal gizaki gazte eta helduak bermatuz. Izan gaitezen hezkide eta aberkide.

Justizia euskaldunaren fabore

• PAKO SUDUPE •

[IRAKASLEA]

Oraindik orain Luix Barinagarrermenteria abokatu euskaldunak erresuminez eta garratzasunez salatu digu Gipuzkoako Abokatuen Elkargoaren jarrera itsua, zinikoa eta hipokrita. Itsua ez duelako aintzakotzat hartzen epaiketak euskaraz egin nahi dituztenek horretarako duten eskubidea, eta abokatuek horri behar bezala erantzuteko duten bete-beharra. Zinikoa, euskarazko epaiketak izateko eskubidea aurrera atera ahal izateko, asko arriskatu dabilzanak, babestu barik zigortzen laguntzen duelako, frakdun kobratzaile bitartekariaren lana eginez; eta azkenik, hipokrita, Bizkaiko Abokatuen Bazkunak, euskarazko epaiketen aurrean beste jarrera bat hartu duen arren, harekin bat egiten duelako itxura, itxura gezurti hutsa, egiten duelako Gipuzkoako Elkargoak. Zenbait epaileren jarrera kontrakoa ere salatzen du orobat; baina, ez da gezurra, zauririk minberenak hurbilenekoek eragindakoak izan ohi direla!

Euskal herritar ongi pentsatu eta ongi heziaren ikuspegitik behaturik, uste izan liteke abokatuen arteko sesio

eta kalapitak baino ez direla. Uste izatekoa da, Gipuzkoako Abokatuen Elkargoak, azalpen neurritsu eta giza-legetsuren bat agertuko duela bere arrazoiak zintzoki aldeztuz —jaramon egitera apaltzen bada—. Duela hilabete batzuk puri-purian egon ziren euskarazko epaiketen inguruko berriak, eta euskarazko epaiketen aldeko euskal abokatuen taldeak egin zituen protesta eta salaketak. Hortaz, berriro beste horrelako auzi-mauzi iskanbilatsua, erradikal eta moderatuagoen artekoa. Hala dela eman lezake; ez da, ordea, hala, inondik ere.

Eskarmentu handiegirik ez dut, baina aski den adinakoa bai, baieztatze gaitza dela euskaldun irautea behin auzibidean eta epaitegietan abiatuz gero. Euskal Herriko ingurune euskaldunenetan ere, epaiketak eta bestelakoak erdara hutsean egiteko dena gertu eta prest dago. Euskaraz egiteko eskatzen hasi, eta eragozpen sail luzeari hasiera emango diozu. Onenean, erdaraz hiruzpalau hilabeterako dena hamar-hamabira luzatuko zaizu, zure amorraziorako!, ez baikara gustuz eta

patxadaz joan ohi epaitegira eskakizunak egitera. Berehala ohartuko zara zein urria eta kaxkarra izan den justizia euskalduntzeko azken hogeitau egindako lana. Zein grinatsuki atxikitzen zaizkion euskaldunon eskubideen kontrako Espainiako legeriari, hainbat epaile eta abokatu erdaldun edo erdaldun nahiko! Denik eta euskaltzale kontsekuenteena izanik ere, zurigarri ez baina alde-aldera konprengarria ere irudituko zaizu bakeak gehiago balio duela eta amore ematea erdal antolakuntzaren aurrean.

Gaia ezin hobeki ezagutzen duten Sabin Intxaurre eta Abel Muniategik dioten bezala, justizia Estatuaren ahalmen eksklusiboa da Espainian —Ipar Euskal Herrian Frantziarena den bezala—. Espainia osoan gandi zabalduko botere amaraun horrek euskarazko epaiketen aurkako epaileak eta abokatuak etxeratan dizkigu, eta delako amaraun gotorrean zulo txoak egiten ausartzen direnek tarantula tzarraren sastakada pozoitsua sentituko dute sakela beti zimurretan, oraino bi milioi pezetatik gorako lapurretak jasan be-

har izan dituztela zenbait abokatu kontsekuente. Sabin Intxaurre, Abel Muniategi eta gisako banaka gutxiaren presentzia itxura batera garrantzitsua gorabehera; gainerako euskal gizartearen ezaxola etsikorrenaren aspian.

Ez dute horrelakorik merezi. Badakigu benetako erremedioa amaraun espainol eta frantsesa urratu, eta euskal amarauna osa dadinean ezarriko dugula, autodeterminazio prozesuarekin orpo orpo loturik; baina, bistan dago etorri ez zaigula egingo, ekarri egin beharko dugula, eta ahalegin handienak egiten ari direnak babesgabe eta esker oneko ezagutzarik gabe utzirik, ez dugula aurrera egingo. Nire esker onaren eta mirespenaren aitortzarik bihozkorrena bihoakie asko arriskatzen ari diren euskal abokatu kontsekuenteek. Eta ez etsitzeko erregua.

Gainerako eragileei berriz, herritar elebidun nahiz elebakar, epaile eta abokatu elebidun nahiz elebakarrei, eta agintariei, euskaldunok epaiketak eta auzibideak euskaraz egiteko dugun eskubidea bermatzeko, guztion bultzadaz eta guztion onerako.